

Eskuz

**Maiden IANTZI
GOIENETXE**

Hasierako urte luzeetan eskuz idazten nituen zutabeak; etxean, autobusean edo, tokirik maiteenean, kafetegian. Eguneroko garraio publikoko joan-etorriak inspirazio iturri amaiezina ziren. Hamarkada hartan ezagutu nuen mikrokosmosean, nik ere nire lekua nuen: bigarren lerroa, eskuina.

Koaderno ugari bete eta bota nituen. Bete ahala bota. Eta letra ttiki eta txukuna handitzen eta zabartzen joan zen, kode sekretu bihurtu arte. Koaderno haietako bakarren bat salbatu da, eta kasualitatez nire eskuetara itzuli. Irribarra atera zait hiztegi bat ikusi dudanean, intentzio guziarekin idatzia, garaian gustatu edo atentzioa eman

zidaten hitzekin. Esaldi politak ere ageri dira apuntatuta. Ohartu naiz funtsean ez naizela aldatu, berdina egiten segitzen baitut; hitzak eta obsesioak aldatu dira... Pixka bat.

27 letra ditu gure alfabetoak, eta hor sartzen da dena, edo ia dena. Umetan lehenengo bokalak eta kontsonanteak marrazten hasten garenean mundu mirregarri bat zabaltzen zaigu, beti harrituko eta lagunduko gaituena. Idaztea eta irakurtzea banaezinak direnez, katean kartelek ziotena deskubritu genueneko ilusio hura biziko dugu berriro testu onen bihotza ukitzen digutenero. Begiak minduta izan arren, leitzeari utzi ezin diogun aldiro. Batzuetan eskumuturra mindu eta baba aterako zaigu hatz

erakuslean, ezingo dutelako idatzi nahi ditugun ideia guztien erritmoa segitu. Bertzeetan, berriz, noraezean geldituko dira behatzak, boligrafoarekin jostetan.

Eskuz idazten hasi eta teklaturaz bukatu dudana zutabe hau eskertza bat da; eskertza arteari, hitzak ematen dizkidalako, eta horrekin mundua eta nire burua ulertzeko aukera, batzuetan hitzak soberan daudela erakusten didalako ere bai, hitzik egokiena bilatzera bultzatzen naudelako, galtzen ari diren hitzak gordetzera eta berriak asmatzera.

Orain, tarteka autobusa hartzen dudalarik, nire lekua bilatzen dut: bigarren lerroa, eskuina. Nahiz eta denbora igaro eta gauzak gertatu, hitz batzuk betiko direlako, eskuz idatziak, hain justu. •

Santu santua

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Santu Guztien eguna izan zen atzo, eta nago egun osoan ez genuela gogoan ere izan lan egutegian jaieguna genuela baino. Ez ginela oroitu garai batean debekatua zegoela lan egitea eta obligazioa zela mezetara joatea.

Edozein eratar, Eliza katolikoaren bosterearen hondarrek hor diraute. Agerikoa da gure bizitza santutegi bilakatu izana, oraindik gizakion izenak, herrietako jaiak eta egutegia santuen izenez josita daude.

Ohitu egingo ginen santuez inguratuta bizitzen, parean jartzen dizkigutela konturatu ere egin gabe, ezdeusak balira bezala. Ezin ditugu ukitu ez sentitu, zer-

bait etereoa dirudite, gehienez hortxe daude post-it bat lez hotz, egutegiaren egun bakoitzean itsatsita zintzilik.

Larri dabilta, ordea, elizari listu itsasgarria akabatzen ari baitzaio eta laster jauziko baitira post-it horiek egutegieta-tik lurrera, eta haizetan desagertuko.

Dikotomia paregabea iltzatu zigun eliza katolikoak: Ona ala gaiztoa, santua ala deabrua, Zerua ala infernua, besterik ez dago. Nirekin ala nire kontra; ikasketa nagusia. Eta nirekin ez dagoenak badaki zer dagoen: eskumikatu, gurutztatu, odol zauriak, erailketa... jaingoaren izenean.

Halere, ene izenari begiratuta lasai egon nintekeela dirudi; izan ere, iraila-

ren 29an San Miguel eguna Deabruaren egunarekin batera ospatzen da. Kasualitatea ote, zer pentsatua eman dit eta berri atzea igurtzi dut...

Baina nik jada ezin diot uko egin ene izen santuari, ezin dut ihes egin, kariñoa eta dena hartu diot, nahiz Zerua batere ez erakarri. Aitzitik, aukera bietatik, deabruen bizitza gori bekataria nahiago, santuen zerutiar zuri garbia baino. Eta, gainera, ez nago kezkatutik, ene izen On hori apaizak ahoskatu baitzuen, ur be-deinkatuarekin bataiatzen ninduen birtartean, deabruetatik babesteko.

Nik behinik aukeran dauzkat.

Hau da hau bizitza santua!

Amen! •